



Ordezkoen kudeaketaren inguruan

Gaur administrazioak astelehenetik aurrera azaroan zabalduko zerrendetatik deika hasiko direla esan digu, hau da, Aholkulari, Ingelesa, Heziketa Fisikoa eta PT espezialitateetatik.

Hala ere, **STEILAS** sindikatuak asteotan ordezkapenekin gertatzen ari dena **gogor salatu nahi du**. Garbi dago administrazioaren aurreikuspen falta eta arduragabekeriaren ondorioz, ikastetxe askotan ordezkapenak lehenengo egunetik ez direla bete.

Jakina zen ordezkapenak lehen egunetik betetzearen ondorioz, milaka langile gehiago beharko zirela sisteman. Zerrendak zabaltzearen deialdia berandu egin zen, eta gainera, eskabideak kudeatzeko ez dute baliabide nahikorik jarri.

Administrazioari behar diren baliabide guztiak jar ditzan exijitzen diogu.



steilas

www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus